

Andaluziako drogen kontsumoa prebenitzeko bi programek harrera ona eduki dute ikasleen artean

Azken urteotan drogen prebentziorako sortutako programen ebaluazioak egiteari garrantzi handia ematen hasi dira erakunde publikoetatik. Gauzak honela, Andaluziako Berdintasun eta Gizarte Ongizate Sailak bertan inplementatu diren bi programen ebaluazioa eraman du aurrera, emaitzak anitz onak izanez. Dena den, nahiz eta plangintza eta diseinurako oso esanguratsuak izan lortutako emaitzak, faltan botatzen da programen benetako efikazia neurtzen duen adierazleren baten erabilpena.



VILLAR, L. (COORD.)
DINO Y PREVENIR PARA VIVIR. EVALUACIÓN DE DOS PROGRAMAS DE PREVENCIÓN DE DROGODEPENDENCIAS EN EL ÁMBITO ESCOLAR.
 SEVILLA, JUNTA DE ANDALUCÍA, 2009, 260 OR.

Alkohola eta tabakoa dira Espainiako gazteriaren artean substantziarik kontsumituenak. Ondorioz, prebentzio programek substantzia horietan zentratzen dute beraien jardueren zatirik nagusia, gazteek jasotako mezuen eragina susma baitaiteke egun dagoen drogen kontsumoaren beherako joeran. Azken urteotan, drogen kontsumoa murriztera zuzendutako programa asko argitaratu dira ikastetxeen esparruan. Gainera, programa hauek dibertsitate handi bat aurkezten dute, askotan inguruan presentzia handiena duten substantzien prebentzioan zentratzen baitira. Era berean, azken hamarkadan programa horien ebaluazioa egitea bultzatu da, beraien benetako hedapena neurtzeko. Orokorrean, programen ebaluaketarako erabiltzen diren irizpideak ondorengoak dira: baliagarritasuna, egingarritasuna, errealismoa, prudentzia, eragingarritasuna, etika eta zorroztasuna.

Premisa hauetan oinarrituz, Andaluziako Berdintasun eta Gizarte Ongizate Sailak Dino eta Prevenir para Vivir programen ebaluazioa eraman du aurrera. Bertan ikastetxe, aditu eta ikasleen artean elkarrizketa eta galdeketa egin ziren helburuak bete diren neurtu ahal izateko. Programa hauen helburu nagusia bi kasuetan drogen kontsumoa aurrezaintzea zen, nahiz eta biek adin tarte desberdinei zuzenduta egon –Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. kurtsoei Dino eta DBHko 4 kurtsoei Prevenir para Vivir–. Erakundeekin eduki zuten komunikazioa oso ontzat jo zuten ikastetxeek programen eskuraketarako, baina behin hau gertatuta komunikazio maila hori desagertu zela onartzen dute partaideek. Izan ere, ez da segimendu mekanismorik sortu eta programen ebaluazioak ez dira metodikoki egin.

Bi programen ebaluaketak hainbat emaitza aurkitu ditu, batzuetan bat datozenak beraien artean, bestetan desberdintasunak aurkezten dituzten bitartean. Argi dagoen lehenengo datua, urteak pasa ahala, programen demandak gora egin duela da. Dena den, denbora edo errekurtsio eza dela eta, ikastetxe batzuk ezin izan dituzte erosteta egin ondoren programak inplementatu. Halere, hamar ikastetxetik batean baino

gutxiago gertatutako fenomeno bat besterik ez da hau. Ikastetxeen barnean, normalean ohiko irakasleek eramaten zituzten aurrera programa hauen jarduerak, ondorioz jorritzen zituzten gaietan formazio espezifikorik eduki gabe. Ikasleek zentzu honetan hobe zitekeen gauza bat azpimarratu dute, beraien aburuz, gaiaren ezagutza handiagoa zuen norbaitek ikuspegi aberasgarriagoak aurkez baititzake.

Programak aurrera eraman dituzten artean, satisfazio maila altua da bai ikasle, baita irakasleen artean ere. Hau horrela izan arren, programaren materialak hobetuko litzuketela baieztatu du partaideetako zati handi batek, formatu, eduki eta luzerari dagokionez, batik bat. Luzerari eta jorritutako gaien begirata, desberdintasunak nabari daitezke bi programen artean. Hain zuzen ere, Dino programan parte hartutako ikasleek sesio kopuru handiagoa eskatu zuten, Prevenir para Vivir programan parte hartu zutenen kontrari. Era berean, jorritutako gai kopuruei kasu eginda, Dino aplikatu zuten ikastetxeetako bi herenetan gehienez hiru gai jorritu ziren bitartean, kopuru berdinak bost gai arte jorritzen zituzten Prevenir para Vivir programaren kasuan. Gai guztiak jorritu dituzten ikastetxeen portzentaiak aztertuz, ordea, juxtu kontrako joera ikusiko genuke, Dino programan bostetik batek jorritu baitzituen eta Prevenir para Vivir-en hamarretik batek.

Laburbilduz, ikerketa honek jasotzen dituen ondorioak oso esanguratsuak gerta daitezke hemendik aurrera substantzia desberdinen prebentziorako programen plangintza eta diseinua egiteko orduan. Dena den, ebaluazioari pausu bat urrutiago iristea falta zaio, benetako efikazia neurtuz. Hau da, programa aplikatu ondoren, gazteengan egon den eraginaren neurketa edota segimenduren bat egotea komeniko litzateke ebaluazioa erabat borobila izan zedin.

Dino eta Prevenir para Vivir programen datu orokorrak

		Dino	Prevenir para Vivir
Ikasle kopuru orokorra		13.420	33.006
Ikastetxe kopurua	Publikoa	193	132
	Pribatu/itunpekoa	18	22